

TRANSIZIOAREN POLITIKARAKO OHARRAK: POLITIKA

MAITE IBAÑEZ
Historiagilea

En resumen, la Transición se extiende desde las primeras elecciones generales de 1977 hasta el referéndum autonómico de finales de 1979. En estos años se celebra el referéndum constitucional (1978), las segundas elecciones generales (marzo de 1979) y las primeras locales y forales (abril de 1979). Las segundas elecciones generales de marzo de 1979 supondrán la aparición de la mayoría nacionalista en la CAPV, tanto por el declive de las opciones estatales como por la concurrencia por primera vez de la recién nacida HB. Las elecciones forales y locales de abril confirmarán la hegemonía nacionalista y el control institucional del PNV, apareciendo la debilidad, sobre todo, del centro-derecha.

1972, AURREKARIAK

1972. urtean Franco jeneralak dagoeneko 80 urte zituen. Bere amaiera gero eta gertuago ikusten zuen neurrian, erregimenaren biziraupena ziurtatuko zuten hainbat xedapen ezartzen saiatu zen eta Carrero Blanco almirantea izendatu zuen gobernu buru, bere Espainiaren irudi berbera zuen frankista leiala. Franco urduri zebilen separatista erradikalen ekintza terroristak handituz zihoazelako pixkanaka eta almiranteak horri eta beste hainbat arazo desorekatzailerri aurre egiten jakingo zuela uste zuen. Baina ETak Carrero Blanco hil zuen 1973. urte amaieran.

1975, FRANCOREN HERIOTZA ETA JOAN KARLOS I.AREN KOROATZEA

Carlos Arias Navarrok jarraitu zuen, gobernazioko ministro eta gizarte-segurantzaren zuzendari ohia; funtsezko legeak berritzeko asmo irekiak zituen eta hau ez zen ez alderdi batekoen ez bestekoen atseginerako izan.

Ez zitzairen gustatu lortutako “*status quo*” galdu nahi ez zuten hierarkei, ezta oposizio demokratikoari ere. Kontuan izan behar da Arias Navarrok demokraziaren manamenduekin talka egiten zuten hainbat oinarri aldaezin defendatzen zituela.

Inolako zalantzarik gabe frankismoaren azken zantzuak ziren horiek, baina, dena den, nahiz eta zaharra izan, diktadorearen eskuak dardararik eta zalantzarik gabe sinatu zituen bost heriotza-zigor, bi ETakide eta hiru *Frente Revolucionario Antifascista Patriótico* erakundeko kide; 1975ko irailaren 27an exekutatu zituzten.

Ekintza honek hautsak harrotu zituen Europa osoan, exekuzioen aurretik nahiz ondoren: kexu-telegra-

mak uholdeka iristen ziren erakunde ofizialetara eta jendea Espainiako enbaxada eta kotsulatuen gainera joan zen.

Milaka manifestariarik diktadorearen aurkako oihuak egiten zituzten Europako hiriburuetatik barne, Ekonomia Erkidegoko herrialde bakoitzak bere enbaxadoreak bildu zituen eta NBEko Segurtasun Kontseiluaren presazko bilera ere eskatu zen Espainia nazioarteko erakundeetatik kanpo utzi ala ez bozkatzeko.

Egoitza Santuan ere erregimenaren garratzasuna ez zen oharkabean pasa: Paulo VI.ak hiru gutun idatzi zituzten diktadoreari terroristentzako barkamena eskatuz eta zigorrarekin bere ezadostasun sendoa erakutsiz.

Francó 1975eko azaroaren 20an hil zen, goizeko 4:20tan. Joan Karlos I.a izendatu zuten ondorengo, jeneralak 1969ko uztailaren 22an erabaki zuen moduan, 1947ko Ondorengotza Legean oinarrituta. Koroatzea azaroaren 22an egin zen Gorteetan eta jeneralaren ehorzketara joan nahi izan ez zuten estatu eta gobernu buruak izan ziren bertan.

Erregearen koroatze-hitzaldiak garai berriak iragartzen zituen. Sistema demokratiko aurreratu bat eskatzen zutenentzat itxaropentsua izan zen, baita etsigarria ere aldaketa azkar bat nahi zutenentzat, izan ere, Joan Karlos I.ak Carlos Arias berretsi baitzuen gobernu buru gisa.

1976, DE ADOLFO SUAREZEN GOBERNUA. ERREFORMA POLITIKOAREN PROIEKTUARI BAI

Politika eta gizartea gero eta gehiago hondatzen ari ziren garai honetan, 1976ko ekainean Erregeak Arias



Navarro kendu zuen kargutik. Adolfo Suarez, funtzionario ezezaguna, Mugimenduarekin lotutako abokatu ezezaguna, Arias Navaroren kabineteko ministroa, irrikaz zegoen Erregearen deiaren zain.

Irailen gobernu berriak erreforma politikoaren proiektua aurkeztu zuen, honen helburua 350 diputatuko kongresua osatu eta 207 senatari hautatzeko Gorteetako lehen hauteskundeak deitzea zen.

1976ko abenduaren 15ean erreferenduma egin zen eta hautesleen %94ak baiezko botoa eman zuen 1936tik egiten ziren lehen hauteskunde libreetan.

Dena den, azpimarratu beharra dago ez zela plebiszitu demokratiko bat izan, oposizioko alderdiak oraindik legalizatu gabe baitzeuden. Parte hartzearen aldeko erakundeen kanpaina bakarra egon zen (*Habla, pueblo, habla* "hitz egin, herri, hitz egin"), baietzaren alde, eta oposizioko indar ez legalen baina toleratuen aldetik abstentzioaren aldeko deia egin zen.

1977, ALDERDIK LEGEZTATZEA, HAUTESKUNDE OROKORRAK

Sistema autoritario batetik erregimen pluralista baterako trantsizio politikoa 1976ko abenduan hasi zen, Erreforma Politikorako Legea onartu zenean.

Handik gutxira, muturreko eskuinak ekintzetara jo zuen. 1977ko urtarrilaren 24ko Atotxako hilketan PCEko zazpi abokatu laborista hilko dira. Gertaera lasgarri honek mundu osoko elkartasun adierazpenak ekarri zituen eta PCE alderdiak bere jarraitzaileak kontrolatzeko gai zela erakutsi ahal izan zuen. Abokatu komunisten hilketen aurrean egon zen erantzun sorta izugarria izan zen.

Garai latzak ziren. ETAk 26 pertsona hil zituen 1975ean, 21 1976an eta 28 1977an, ondoren kopuru askoz handiagoetara pasa zen. 1978. urtean hildakoen kopurua 85 pertsonetara igo zen, 118ra 1979an eta 124ra 1980an. GRAPOrri dagokionez, talde maoista honek bi bahiketa egin zituen 1976ko abenduan baina hauek askatu eta amaiera zoriontsua izan zen.

Zurrumbilo honen erdian, 1977ko otsailean, alderdiak legeztatzeke baldintza zorrotzenak desagertuko dira, PCE izan ezik gainerako guztiak legalizazioa lortu zuten.

Ez zuten luzaroan itxaron behar izan. 1977ko apirilaren 9an gobernuak Mugimendua ezabatzea erabaki zuen, frankista zen alderdi bakarra, inork zalantzan jarri ezin zezakeen ideologia katoliko-kontserbatzailekoa. Espainiako Alderdi Komunista (PCE) legalizatu zuen eta bi egun barru PSUC (Partit Socialista Unificat de Catalunya) alderdia. Biztanleriaren %45 alde zegoen eta %17 aurka.



Lehenago, martxoaren 17an, Suarezek amnistiaren legea aldarrikatu zuen preso politikoentzat eta apirilaren 28an sindikatuak legeztatu zituen.

Torcuato Fernandez Mirandak, erregearen aholkulari leialak, Gorteetako Lehendakariatzatik eta Erresumako Kontseilutik dimititzea eta Joan Borboik bere seme Joan Karlosen alde abdikatzeko izango dira 1977ko hauteskundeak baino lehen biziko diren bi gertaera gogoangarri.

ALDERDI POLITIKOAK

Espainiako Alderdi Komunista (PCE)

Beharbada gehiegizko izaera berriemaile eta jarre- zaharkituegia izateagatik ez zituen PCEk ezkerren bozka gehienak lortu. Espainiako Alderdi Komunista (PCE) erregimen frankista osoan zehar oposizioarekin identifikatu zuten, sistemak berak hala nahi izan baitzuen eta biztanleriaren gehiengoak hala asimilatu zuelako. PSOE alderdiak ez bezala, PCEk ez zuen bere norabide politikoa berritu, Pasionaria lehendakari- zana eta Santiago Carrillo idazkaritza nagusian. Hauteskunde kanpainen, Carrillok ez zituen gazteak eta hautesle posible berriak erakartzen jakin. Gabezi hau hizkera nahiko moderatuan igar zitekeen, honek, demokraziaren garapen baketsuari lagundu bazion ere, PCE alderdia 20 eserlekurekin soilik utzi zuen Gorte berrietan, botoen %9.

PCEren ezker aldean hainbat indar kokatu ziren (PTE, ORT, LCR, MC), hauek botoak bereganatzen saiatzen ziren, jendeak ez baitzuen PCEn nagusi zen zentzu moderatua ulertzen, ezta *Comisiones Obreras* sindikatukoa ere, sindikatu komunista izanik ez baitzuen Euskadin 1977ko maiatzaren 16ko greba orokor- raren alde egin.

Espainiako Alderdi Sozialista Langilea (PSOE).

PSOE estatuko bigarren alderdirik bozkatuena izan zen, ezkerren boto gehienak hartu zituen. Franco hil eta gero eman zuen irudia gaztea, dinamikoa, organiazio gaitasunarekin eta nazioarteko onespina duenarena izan zen eta biztanleriaren gehiengoak erregimenaren oposizioarekin identifikatu zuen.

PSOEek bere siglen babesean *Convergencia Socialista*, jatorri katolikoa zuen alderdia, eta beste hainbat alderdi bildu zituen, PSC katalanak esaterako, hauek frankismoan bide guztiz autonomoa egin zuten. Baina Felipe Gonzalez ez zen Enrique Tierno Galvanen *Partido Socialista Popular* (PSP) alderdiarekin ondo moldatu. Botoen %29 lortu zuten, 118 eserleku.

Unión de Centro Democrático

UCDk moderatu asko bildu zituen Adolfo Suarezen karismari etekina ateratzeko. *Ad hoc* sortutako erreformisten, liberalen, kontserbatzaileen eta kristau-demokraten koalizioa : *Partido Demócrata Cristiano, Partido Socialdemócrata, Unión Socialdemócrata, Partido Socialdemócrata Independiente, Federación Socialdemócrata, Partido Popular, Federación de Partidos Demócratas y Liberales, Partido Demócrata Popular, Partido Progresista Liberal, Partido Liberal, Partido Social Liberal Andaluz, Partido Gallego Independiente, Acción Regional Extremeña, Acción Canaria, Unión Demócrata de Murcia*. UCDn ez zeuden zentroko alderdien artean *Democracia Cristiana* (DC) nabarmentzen zen, ezkerreko beste indarrekin batera senatari gutxi batzuk lortu baitzituen.

Calvo Soteleri zor zaio alderdiaren behin betiko izena, berak gehitu baitzion *Unión* hitza. UCDtik hauteskundeetara aurkezten ziren hautagaietatik %36 independentea zen —hau da, frankismoaren kolaboratzaile moderatuak—; Gainerakoetatik %17 *Partido Popular* alderdikoak ziren eta %12 kristau-demokratik. UCDk hautestontzietan lortu zituen 165 diputuetatik, botoen %34tik, %17,5 frankismoan Gortee-tako prokuradore izandakoak ziren.

Alianza Popular

1976ko urrian *Alianza Popular* sortu zen hainbat talde neofrankista batu eta gero. Manuel Fraga Iribarne zen buru eta antzekoak ziren beste alderdiekin bateratuta 16 eserleku lortu zituen.

Eusko Alderdi Jeltzalea

Bigarren errepublikan gobernu autonomo bat sortu zen Euskadin Gerrate Zibila hasi baino lehen. Orduko

alderdi nazionalistarik adierazgarriena Eusko Alderdi Jeltzalea zen (EAJ), honek erbestean mantendu zuen gobernu eta bere oihartzuna atzerriko herrialde eta erakunde ezberdinetaraino iritsi zen. EAJk boto nazionalista moderatua lortu zuen, PDCK Katalunian beza-la.

Nazioarteko foruetan zuten jarduera politikoa oso ezberdina zen EAJko buruen borroka geldituarekin alderatuz gero eta agian hau izan zen arrazoia alderdiko gazte batzuk banandu eta 1958. urtean Euskadi eta Askatasuna (ETA) sortzeko, bere oinarriak ondorengo hitzekin azaltzen zituen *alderdi politikoa*: “*negoziagarria ez den independentismoa, muturreko jarrerak estrategia politikoan, sozialismo humanista edo, beharrezkoa balitz, armez baliatzea inbaditzailea kanporatzeko, aurreko operantzia eza eta kolaborazionismotik tabula rasa egiteko nahiak batuta*”. ETAre indarkeriazko ekintzak kaleko zalapartatik hasi ziren. Hauek atxiloteta ugarirekin amaitzen ziren baina ekintzak gero eta nabariagoak izaten hasi ziren V. Asanbladaz geroztik (1967), Meliton Manzanasen hilketeta eta berehala.

Diktadorearen heriotzak ekarri zuen etorkizun irekiak banaketa ekarri eta ETA politiko-militarra eta ETA militarra geratu ziren, lehenengoa borroka armatua ekintza politikoarekin batera egitearen alde zegoen eta bigarrenak, berriz, nahiago zuen borroka irekia.

1977. urteko hauteskundeetan aurrean ETA politiko-militarraren zati batek borroka armatua bertan behera utzi eta Euskadiko Ezkerra (EE) ezkerreko alderdiaren partaide sartu ziren; alderdi honek eserleku bat lortu zuen eta gainerako erakundea alderdiaren alderdi armatu gisa geratu zen. ETA politiko-militarraren eta EE-ren arteko distantzia handituz joan zen, lehenengoa indarra galduz joan zen eta 1982ko irailean desegin egin zen.

EAJ eta ANVren nazionalismo historikoaren ondoan “*ezker abertzalea*” deituriko erakundeak sortuko dira; hauek 50eko hamarkadatik ETAre borroka antifrankista jasotzen saiatuko dira: ESB eta ESI, izaera sozialdemokrataduna, lehen aipatutako EEren koalizioa, EIA, EMK, ES, EK alderdiek osatua eta izaera marxista iraultzaileaduna eta EHAS. Azken honen bateratze fasearen ondoren HASI eta LAIA sortuko dira, ETA militarrek lagunduko ditu eta hauteskundeetan ez dute 1978an HB sortu arte parte hartuko.

1977KO HAUTESKUNDEAK

Hauteskundeak UCDk irabaziko ditu gehiengo erlatiboagatik eta hautestontziek hainbat ezuste emango dituzte: PSOEek izugarritzko arrakasta izan eta ezkerren boto asko kenduko dizkio PCERI eta AP alderdiak,

hauteskunde kanpaina luze eta garesti bat egin bazuen ere, oso emaitza apalak lortuko ditu.


1977ko uztailaren 4ean Adolfo Suarezek berri ere Gobernuako Presidente karguari egingo dio zin Erregearen aurrean.

Kabinete berria UCDko partaide ezberdinen erakusgarri da. Militar bakarra dago: Gutierrez Mellado teniente jenerala, honek Gobernuako Presidenteorde eta Defentsarako Ministro karguak hartu zituen.

Bi dira hautetsi berri diren Gorteen helburu nagusienak: estatuko egoera ekonomiko eta sozial latzari irtenbide bat ematea eta berri den egoera demokratikoa formalizatuko duen konstituzioa osatzea.

Testua 1978ko urriaren 31ean onartuko da Kongresuan, 325 aldeko boto, 6 kontra (EEko diputatuarena eta APko diputatuena) eta 14 abstentziorekin (hauen artean EAJkoak), Senatuan 226 aldeko boto, 5 kontra eta 8 abstentzio egon ziren. 1978ko abenduaren 6an %33ko abstentziorekin onartuko da testua.

Konstituzioak boterearen deszentralizazio prozesu sakon bat zekarren, 17 autonomia ematen zituen, ba-



koitza bere parlamentua eta hainbat eskumenekin, pixkanaka gobernu lokalaren kontrola eta kudeaketa hartu zuten.